

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4525

1922/2024 EBAZPENA, irailaren 17koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Maite Yeregui Huarte andreak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Langileen zuzendariordea kargua uzten duen, berak hala eskatuta.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerenteak Maite Yeregui Huarte Langileen zuzendariorde izendatu zen maiatzaren 29ko 815/2017 Ebazpenaren bidez.

Aintzat hartuta ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/1997 Legearen 28. artikulua, hirugarren arau komuna, Osakidetza lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, Osakidetza Ente Publikoko erakunde sanitario integratuen gaineko uztailaren 3ko 100/2018 Dekretua, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maite Yeregui Huarte andrea Barrualde-Galdakaoko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko ESiko Langileen zuzendariordea kargutik kentzea, berak hala eskatuta, eta emandako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko irailaren 30ean lanaldia bukatutakoan izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2024ko irailaren 17a.

Barrualde-Galdakaoko ESiko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.